

Ordizian, 2016ko maiatzaren 23an, Udaletxe honetako batzar aretoan bildu zen TOKIKO GOBERNU BATZORDEA, ohiko deialdian, honakoak bertaratu zirelarik:

BERTARATUAK:

BATZORDEBURUA: José Miguel Santamaría Ezeiza

BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK:

Angelica Moreno Heras
Igor Eguren Izagirre
Mila Sukia Galparsoro
Iñaki Dubreuil Churruca

EAJ/PNV
EH Bildu Ordizia
Ordizia Orain
PSE-EE (PSOE)

BERTARATU EZ DIREN ZINEGOTZIAK:

IDAZKARIA:

Ana Urkizu Kerejeta

Carlos Gonzalez Astiz (IRABAZI) ere azaldu da.

BERTARATUAK ETA EZIN ETORRIAK

4. puntu bilerara etorri dira Adur Ezenarro, Iزارo Intsausti eta Maria Jesus Soto de los Santos.

EGUNEKO GAI ORDENA

- 1.-2016ko maiatzaren 9ko ohiko bilkurako akta onartzea.
- 2.- 6.000 €tik gorako fakturak
- 2.- Berrikusketa Katastralaren Balio Txostenari alegazioak
- 4.- 2016ko Aurrekontuak.
- 5.-SASIETA: Hondakinak biltzeko sistema aldatzea.
- 6.- Txostenak eta hainbat eskari.
6.000 €tik beherako fakturei buruzko informazioa.

GALDE-ESKAERETAN SARTUTAKO GAIK:

- .- Taxi en gaueko zerbitzua
- .- Ramadan festa.
- .- Koordinazio soziosanitarioa.



- .- Banku Etikoaren eta Kontu Irekien Ordenantza.
- .- Ipinitako radarra eta semaforoa gorrian.
- .- Altamira auzoko bizilagunekin zenbait hausnarketa.

ORDUTEGIA

HASIERA ORDUA: 15:15

AMAIERA ORDUA: 18:00



Batzordeburu jaunak hasiera eman dio saioari, gai-zerrendako lehen puntuari helduta:

1.- 2016ko maiatzaren 9ko batzordeko akta onartzea.

Proposamena

“Ohiko deialdian egin zen 2016ko maiatzaren 9ko aktaren zirriborroa onartzea”.

Aho batez onartu da.



2.- 6000 €tik gorako fakturen zerrenda.

.- 26.zerrendaren berri ematen da, kopurua: 6.362,63

.- 28.zerrendaren berri ematen da, kopurua: 6.362,63

Aldeko irizpena jaso dute.



3.- Berrikusketa Katastralaren Balio Txostenari alegazioak

Alkate jn.

Gaiari buruzko informazioa eman du. Alegazioak egiteko jarraitu beharreko prozedura azaldu du.

Gobernu Batzordeak oniritzia eman dio txosten teknikoan egiten diren alegazioak onartzeari eta alegazioen Txostena onartzen duen Dekretua Aldundiari bidaltzeari.

Alkatetza Dekretu bidez egin.



4.- 2016ko Aurrekontuak.

Puntu honetan bilerara etorri dira Adur Ezenarro, Iزارo Intsausti eta Maria Jesus Soto de los Santos.

Ezenarro jauna

Zenbait azalpen eta zehaztapen eskatu ditu.



Gastu Arruntean bat egiten dute gobernu taldearen proposamenarekin eta ez dute eztabaidatuko baina egokia iruditzen zaio neurriak hartzea zenbait gastu jaisten joateko (festak, D'Elikatuz... etab.).

Inbertsioetan ados egon daitezke proposatutako Inbertsioen proposamenarekin, baina jakin nahi dute zein den onartzeko prozedura eta zer gertatzen den 2015eko Diruzaintza gerakinaren soberakinarekin.

Esan du Inbertsioen atalean beharbada urte anitzeko planean eta fase desberdinetan, aurrekontuaren erabilgarritasunaren arabera, komeni litzatekeela Plan estrategiko bat aurreikustea San Joan, Buztuntza, Altamira eta Su eskola lotzeko oinezkoentzako.

Gonzalez jn.

Adierazi du OHZn bigarren etxebizitzengatik jasotzen diren diru-sarrerak orekatu behar liratekeela akolairu sozialera bideratutako gastuan erabiliz.



5.-SASIETA: Hondakinak biltzeko sistema aldatzea.

Sasietak Udalari jakinarazi dio hondakinak biltzeko aldaketa sistema Udalaren kontu doala.

Edukiontzia erosteko kopurua 133.000 €koa da.

Gonzalez jn.-

Azalpenak eskatu ditu eta Sasietan Ordiziako Udalaren ordezkari direnekin ados ez dagoela jakinarazi du Batzordean, kontainerren ordaintzaren gaiaren inguruan hondakinen mahaiari ez diotelako jaramonik egin. Kontainerrak Sasietaren ondasunak dira eta ez da bidezkoa Ordiziak ordaintzea. Gainera Alkateari eskatu dio kontainerrak ordaintzen badira, berehala jarri beharko liratekeela.



6.- Txostenak eta hainbat eskari.

.- 6000 €tik beherako fakturei buruzko informazioa.

25. eta 27. zenbakidun zerrendaren berri eman da.

Fakturei oniritzia eman zaie.



7.- Galde-eskeak.



Dubreuil jn.

Taxien gaueko zerbitzuari buruzko informazioa eskatu du. Esan du ez dela zerbitzu hau ematen. Ordenantza bete behar dela eskatu beharko litzateke.

.....

Errugbi zelaia eskatzea. Eskaera bat aurkeztu da zelaia Ramadan festarako erabiltzeko. Azaldu du, antolatzaileen kultura eta tradizioak direla medio, emakumeekiko berdintasun arloan banandu eta baztertu egiten dutela. Bere ustez Udalak araudia betetzeko eskakizuna egin behar die, hau da, emakumeak banandu eta baztertzeko debekua ipini.

Zerbitzu desberdinei oharra pasa honen berri izan dezaten.

.....

Koordinazio soziosanitarioa: Koordinazio protokoloan programa berri bat sartu da, pertsona nagusienganako tratu txarren diagnostikoa da.

.....

Sukia and.

Banku Etikoaren eta Kontu Irekien Ordenantzari buruz galdetu du. Osoko bilkuran konpromiso bat hartu zela adierazi du eta onartzeko prozedura martxan jarri behar litzatekeela uste du.

Usunbillagako lur-jausien gaiari buruz galdetu du. Familia bakarreko etxebizitzetako bizilagunen kezkaren berri eman du.

Alkate jn.

Informazioa eman dio.

Hitzarmenaren kopia bat pasako dio Mila Sukiari, Igor Egureni, Iñaki Dubreuili eta Carlos Gonzalezi.

.....

Sukia and.



Trafiko segurtasunaren inguruan hartutako neurri berriei buruz galdetu du: Ipinitako radarra eta semaforoa gorrian.

Alkate jn.

Informazioa eman dio.

Sukia and.

Hasitako prozedura zigortzaileak ixteko proposamena egin du. Bere ustez ondo dago zenbait puntutan abiadura kontrolatzea, baina neurria gehiegizkoa iruditzen zaio.

Eguren jn.

Neurriaren berri prentsa bidez jakin izana kritikatu du. Horrekin batera ez zaio egokia iruditzen isunen kudeaketan laguntzeko enpresa pribatu bat kontratatzea, eta gainera, horretara 2 udaltzainen dedikazioa bideratzea.

Gainera oraindik ez daki, nahiz eta behin baino gehiagotan eskatu, Trafikoko Mahaiaren inguruko teknikarien txostenen emaitza zein den.

Gonzalez jn.

Konpondu beharreko bide-seguntasan arazoak badaudela aitortu du, eta zigorrak eta zehapenak beste modu bat direla esan du. Gai hauek aztertzeko Mugikortasun Mahaia eratzeko eskakizuna egiten jaraitzen du.

Iturrioz jauna

Esan du beharbada beste alderdi politikoei informazioa eman behar zietela baina uste du irtenbide bat eman behar zitzaiola bizilagunek kexa asko aurkeztu dituztelako abiadura handiegian ibiltzen direlako.

.....

Sukia and.

Altamirako bizilagunekin egon direla adierazi du. Bere ustez alderdi politiko desberdinekin batera aztertu behar liratekeen hausnarketa batzuk egin dituzte.

Gonzalez jn.

Bizilagunen Elkartearekin bilera egin zuela jakinarazi du eta dagoen bizilagun elkarte mugimendu murrizta babestu behar dela uste du beraz, elkarte hau zaindu behar da. Alkateari egindako eskaeren



berri eman dio eta jakinarazi dio eskaera horien artean konpontzeko errazak eta azkarrak diren eskaerak badaudela. Alkate jaunak erantzun dio esanez Arantxa Fernandez andreak horren ardura hartu duela.

Esan du, IRABAZI eskaerak hierarkizatzen laguntzen saiatu dela eta hainbat instituzio erakunde eta kontseilutara sartu behar zituztela esan zien eragin handiagoa izan dezaten eta kultur, gizarte era kirol ekintza gehiago jaso. Udalerrian gehiago integratzen laguntzeko.



Eta aztergai gehiagorik ez dagoela, alkate jaunak bilkura amaitutzat jo du. Behin-behineko idazkari naizen honek bilkuraren Akta jaso, eta horren egiaztapena egiten dut.

